

# Txapela buruan eta ibili munduan

## Bizirik irauteko eskuliburua

EAEko ordezeko irakasleak  
2021eko urtarrila

- Sarrera. Egungo egoera
- Ordezkoen araudia
- Zerrenden osaketa eta kudeaketa
  - > Zerrenden arteko lehentasunak
  - > Zerrenda orokorraren ordena
  - > Birbaremazioa
  - > Zerrendetako egoerak
  - > Uko egiteko arrazoiak
  - > Zerrendetatik kanporatzea
  - > Zerbitzua emateari uztea
  - > Ordezlagunea
  - > Funtzionamendu orokorraren salbuespenak
- Uda kobratzea
- Langabezia + jardun murriztua etab.
- Esleipenak
- Egonkortasuna
- Ordezkoen aldarrikapenak
- Informazio gehigarria

## Sarrera. Egungo egoera

Txosten honen helburu nagusia ordezkoei informazio praktikoa helaraztea da.

Hemen jasota dauden hainbat eskubide langileen borrokari eta sindikatu batzuen presioari esker lortu dira.

Borroken ondorioz, aurre-akordio bat sinatu genuen 2018an Hezkuntza Sailarekin (nahiz eta kontu batzuk itxi gabe geratu ziren) eta aurten Lan Hitzarmen berriaren negoziazioarekin hasi gara, bertan zehazten diren neurriek gure ikastetxeetan eta haietan lan egiten duten langileengan onurak ekarriko dituzte. Negoziazio horretan, beti egin izan dugun bezala, irakasle guztion eskubideak defendatuko ditugu.

### 2020ko Martxoko astindua

Ustekabean etorri zitzaigun martxoan itxialdia eta, egun batetik bestera, gutariko batzuk telelanean hasi ginen eta beste batzuk sei hilabetez lanik gabe geratu ginen, Ordezlagunea bertan behera utzi baitzuten. Hasieran nahasmen ikaragarria gertatu zen, lanean geunden askok ez genekien nola bete geure lana. Aurrez aurreko irakaskuntzan aise egiten direnak zail bihurtzen dira urrutikoan.

Horrez gain, ordutegiak lausotu egin ziren. Aurrez aurrekoan ordutegiak ongi finkatuta daude, baina urrutikoan, maiz mugarik gabe hedatu ziren.

Ordura arte irakasle gehienentzat balekoak ziren hornikuntza informatikoa eta konexioa urri geratu ziren. Gutariko askok hornikuntza informatikoan inbertsio ekonomikoa egitera behartuta sentitu ginen. Ikasleen artean ere bazegoen arrakala digitala, hainbatek ez ordenagailurik ez konexiorik ez zutelako eta, usu, geure telefono pertsonalaz "moldatu" behar izan genuen.

Telelanak lan-akordioek ezartzen dituzten markoak gainditu egin ditu hein handi batean, eta honek lan baldintzen prekarizazioa ekarri du. Negoziazio kolektiboaren esparruan sakontasunez jorratu beharreko gaia da, arautu eta mugatu beharrekoa.

**GORA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA!**

## Ordezkoen araudia

Ordezkoen araudia  
(2019-02-26ra arte)

Titulazioen eta  
espezialitateen taula  
(2020-03-12ra arte)

Informazio  
guztia

[Esteka](#)

[Esteka](#)

[Esteka](#)

## Zerrenden osaketa eta kudeaketa

### Sarbidea

[Zerrenda gehienak irekita!](#)

[On-line betetzeko gida](#)

[Ohar garrantzitsuak](#)

[Esteka](#)

[Esteka](#)

[Esteka](#)

1. Zerrendak irekitzeko deialdietan izen-ematea (2018ko aurreakordioari esker guztiak irekita) beharrezkoa den titulazioarekin.
2. Birbarematze-prozesuan, zerrenda batean jada baldin bazaude eta behar den titulazioa baduzu beste zerrenda baterako.
3. Oposizio probak gainditzea baina plazarik ez lortzea.

### Zerrenden arteko lehentasunak

1. Espezialitateko zerrenda orokorra.
2. Espezialitateko oposizio probak gainditu dituzten pertsonekin osatutakoa.
3. Zerrendak irekitzearen ondorioz sortzen direnak.
4. Hizkuntza Eskakizunak betetzen ez dituztenek osatutakoak.
5. Prestakuntza Pedagogikorik ez dutenen zerrendak (bigarren hezkuntza eta lanbide heziketan).

### Oharrak:

2. eta 3. puntuetakoak birbarematziorako prozesuan zerrenda orokorrean sartuko lirateke. ADI egon beharra dago ziurtatzeko hori gauzatzen dela.
4. eta 5. puntuetakoek ezin izango dituzte aukerak aldatu (lurralde historikoa eta jardun mota).

## Zerrenda orokorraren ordena

Espezialitate bakoitzeko zerrenda orokorra puntuen arabera ordenatzen da, hemen irizpide esanguratsuenak (gehiago ordezkoen araudiko eranskinetan):

		Puntuazioa
Esperientzia irakaskuntza arautuan	Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 60 egun = puntu1</li> <li>• Espetxeetan, 60 egun = 2 puntu</li> </ul>
	Pribatuan eta Haurreskolak Partzuergoan	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 60 egun=0,33 puntu</li> </ul>
	Haur-eskola pribatuetan	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 60 egun=0,11 puntu</li> </ul>
Prestakuntza akademikoa	Eskakizunezko titulazioaren espediente akademikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 9tik 10era puntu 1</li> <li>• 7tik 8,999ra 0,75 puntu</li> <li>• 6tik 6,999ra 0,50 puntu</li> <li>• 5etik 5,999ra 0,25 puntu</li> </ul>
	Bestelako gradu edo lizentziaturak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Puntu 1</li> </ul>
	Diplomaturak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 0,5 puntu</li> </ul>
	Master Titulu Ofiziala (urriaren 29ko 1393/2007 EDk arautua)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 0,5 puntu</li> </ul>
	Doktore-titulua	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Puntu1</li> </ul>
Hautaketa-prozesuak gainditzea	2019tik aurrera oposizio fasea gainditzeagatik	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 6 puntu</li> </ul>
Lanbide heziketan	Arloan izandako lan esperientziaren hilabete bakoitzeko	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 0,25 puntu (gehienez 15 puntu)</li> </ul>
Musikako irakaskuntzak, Arte dramatikoa eta Dantza irakaskuntzak	Arloan izandako esperientzia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• *Begiratu ordezkoen araudiko 1. eranskinaren C, D eta E atalak</li> </ul>

## Birbaremazioa

- Ordezkoen zerrendak eguneratzeko da eta martxoaren hasieran egin ohi da.
- Epe horretan irakasle.net-en bidez hautagaiaren fitxa kontsultatu eta zure datuak zuzenak direla egiaztatu dezakezu, aurreko taulako baremoak barne.
- Aukeratutako lan-aukerak aldatzeko ere balio du, lan egiteko lurraldea, jardunaldi mota, espezialitateak gehitu edo kendu, etab.
- **Adi egotea komeni da!** Behin-behineko ebazpenak ateratzean **erreklamazioak** egin daitezke eta! Behin betiko ebazpenei **gora jotzeko errekurtsioak** ere bai!

## Zerrendetako egoerak

1. Lanean.
2. Lanerako prest.
3. Jarduera-eten iragankorreko egoera semeak/alabak 3 urte bete arte.
4. Aldi baterako baja, honako baldintzaren bat egiaztatuz gero:
  - a. Gaixotasun arrunta.
  - b. Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako baja.
  - c. Haurdunaldian arriskuan egotea edo arriskuko haurdunaldia izatea.
  - d. Gurasotasuna, adopzioa eta harrera.
  - e. Odol edo ezkontza-ahaidetasuneko 2. mailara arteko ahaideen gaixotasun larria edo heriotza.
  - f. Norbera ezkontzea edo izatezko bikotea eratzea.
  - g. Askatasuna kentzea, kondena epaia ematen ez den arte.
  - h. Hezkuntza administrazioek antolatutako ikastaroetan parte hartzea.
  - i. Ikasketa-beka baten onuradun izatea.
  - j. Ikasketa ofizialetan edo praktiketean aritzea.
  - k. Lan-kontratua izatea edo autonomo gisa altan egotea.
  - l. Atzerrian GKE (ONG) bati zerbitzuak ematen egotea.
  - m. Zerbitzu berezietan egotea.
  - n. Indarkeria-mota baten biktima izatea.
  - o. Ahalmeneko protokoloaren ebazpenaren zain egotea.

Aldi baterako BAJA egoera hauetan zaudela, ordezkapenak eta bakanteak esleituz gero, KONTRATU FIKTIZIOPEAN zaude! (37. art)	Esleipenetan parte hartzea	Birbaremazioarako puntuak	Oporrak kobratzeko balio dute	Antzinasuna sortzen dute	Zerbitzu orria, puntuak EPErako...	Kotizazioak	Bakantea bada, egoera bukatzean lanera
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan istripua / Lanbide gaixotasuna</li> <li>• Gurasotasun / adopzio / harrera</li> <li>• Haurdunaldian arriskua / Arriskuko haurdunaldi</li> </ul>	BAI	BAI	BAI	EZ	EZ	EZ	BAI
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarduera-eten iragankorra [<i>Suspensión transitoria</i>]</li> <li>• Zerbitzu berezietan egotea</li> </ul>	BAI	BAI	EZ*	EZ	EZ	EZ	BAI

- \* Jarduera-eten iragankorra uztailaren 1erako mozten bada, **uda kobratzea** dagokio.
- Bajaren justifikazio egoera sortu eta 10 egunen naturaleko epean egiaztatu!
- Egoera amaitzean lanerako prest zaudela jakinarazi behar da, **10 egun naturaleko epean (bestela zerrendetatik kanporatuta izan zaitezke).**

## Uko egiteko arrazoiak

Eskaintza egiten den unean jakinarazi behar da:

1. Aldi baterako bajaran egoteko baldintza bat betetzea (egiaztatzeko 3 egun).
2. Plaza jakin gutxi batzuei (Berritzeguneak...) uko egin ahal zaie zerrenda espezifiko horretan ez bazaude. Bestalde, plaza horietara joan nahi izanez gero, unean duzun plazari uko egin diezaiokezu. (34. eta 40. art.).
3. Esleitu eta hurrengo 15 egun naturaletan postua betetzeko gaitasun falta sumatzea (46. art., protokoloa).
4. Aniztasun funtzional fisikoa duen pertsona batek lanpostuaren zereginak bete ezin izatea.
5. Lanbide Heziketako ezaugarri berezietako lanpostuetan. Begiratu 46. artikulua.

## Zerrendetatik kanporatzea

Kanporatzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

1. Ordezkoak berak eskatzea.
  2. Karrerako funtzionarioa izendatuta izatea kidego eta espezialitate horretan.
  3. Derrigorrezko erretirorako adina izatea (70 urte).
  4. Eskaintzari uko egitea onartutako arrazoirik eman gabe. Horrek espezialitate eta lurralde historiko guztietatik desagertzea dakar.
  5. Uko egiteko arrazoiak ez alegatzea edo ez egiaztatzea, aginduak ezartzen dituen epe eta baldintzetan.
  6. Esleitutako lanpostura ez joatea.
  7. Diziplina-espedientea jasotzea, hutsegite larri edo oso larri batengatik.
  8. Eginkizun arruntak gauzatzeko gaitasun-falta nabaria izatea. (45. art).
4. 5. eta 6. kasuetan, kanporatutako kurtsoan eta datorrenean ezin izango zara sartu berriro zerrendetan.

## Zerbitzua emateari uztea

- > Ordezkapenaren azken egunean, hautagaiak **9:30etik 12:30era** bakarrik izango du bere **lan egoera aldatzeko aukera**. Ordu tarte horretan "lan egiteko moduan" jartzen bada, egun horretan eskaintzen diren plazak hautatu ahal izango ditu.
- > Ordezlaguneak lan egoera aldatzen uzten ez badizu, hezkuntza Lurralde-Ordezkaritzari **jakinarazi** ahalik eta azkarren!

## Ordezlagunea

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako lanpostu hutsak estaltzeko eskaerak telematikoki kudeatzea ahalbidetzen duen sistema da. **Bi funtzio nagusi** izango ditu:

1. Oinarrizko datu pertsonalak berrikustea/eguneratzea/biltzea	2. Ikastetxe publikoetako lanpostu hutsak estaltzeko kudeaketa
<p>Harremanetan jartzeko datuak, saila telematikoki komunikatzeko hautagaiekin (e-mailez eta telefonoz).</p> <p>Zenbaitetan, hautagaiaren <b>ohiko helbidea berrikusi/eguneratu</b>, sistemak hautagaiaren ohiko helbidetik EAEko edozein ikastetxe publikotarainoko distantzia kalkulatu ahal izan dezan (kilometrotan), beharrezkoa denean.</p>	<p>Ikastetxe publikoetako <b>lanpostu hutsak estaltzeko eskaintza</b> eta lanpostu horien ezaugarriak egunero kontsultatzeko aukera ematea.</p> <p>Hautagaiari eskaintzaren barruan estali nahi dituen <b>lanpostu hutsak eskatzeko</b> eta eskaerak <b>lehenesteko</b> aukera ematea.</p> <p>Hezkuntza Sailera lanpostu hutsen eskaera <b>bidaltzea</b>.</p> <p>Sailak egunero egiten dituen esleipenetara sartzeko eta <b>jakinarazpena</b> bitarteko hauen bidez <b>jasotzea</b>: e-mail, SMS edo telefonoa.</p>

**Ohar garrantzitsuak:**

1. Egunero parte hartu behar da esleipenean lanpostu bat lortzeko aukera izateko ("lanerako prest" egoeran bazaude).
2. Ordezlaguneko ordutegia:
  - a. Lanpostu hutsak estaltzeko eguneroko eskaintza argitaratzeko ordua eta eskaerak egiteko **ordutegia 13:30etik 15:30era** bitartean.
  - b. Esleipena **ikusteko ordutegia: 16:30etik** aurrera ikusgai Ordezlagunean.
  - c. Nire lan egoera aldatzeko **ordutegia: 9:30etik 12:30era** bakarrik.

## Funtzionamendu orokorraren salbuespenak

1. Ordezkapena bukatu eta **10 irakastegun\* baino lehen** irakasle bera ordezkatu beharra sortzen bada eta ikastetxeak horrela jakinarazten badio dagokion lurralde ordezkaritzari, ordezko berdinak egingo du ordezkapen hori, egiteko moduan badago.
2. Pertsona bat lanaldi osoko ordezkapen bat egiten ari bada, eta postuaren **titularra lanaldi murriztuarekin itzultzen bada** lanera, ordezkapena egiten ari zen pertsonak jarraitu beharko du ordezkapena egiten lanaldi murriztuko aukera hautatu bazuen; bestela, berak erabakiko du lanaldi murriztuarekin jarraitu nahi duen edo ez.
3. Pertsona bat lanaldi murriztuko postu bat estaltzen ari bada, eta hori **lanaldi osoko postu bihurtzen bada** edozein arrazoi dela eta, lanaldi partzialean izendatuta zegoen pertsonak jarraituko du lanaldi osoko postuarekin, lanaldi osorako puntuazio hobea duten pertsonak badaude ere, lanaldi osoko aukera hautatu bazuen; bestela, berak erabakiko du postuarekin jarraitu edo ez.

4. Lanaldi murriztuko ordezkapena egiten ari bazara, eta ikastetxe berean **lanaldi murriztuko beste ordezkapen bat egiteko premia** sortzen bada eta ikastetxeak dagokion Lurralde-Ordezkaritzari horrela jakinarazi badio, hautagai horrek lehentasuna izango du ordezkapen hori egiteko, puntuazio handiagoa duten hautagairik badago ere, zerrendan 1. kidesunarekin baldin badago, eta ordutegi-bateragarritasuna badu.

\*Irakasteguna: astelehenetik ostiralerako eguna, irakasleontzat laneguna bada

## Uda kobratzea

Ikasturtean zehar 165 egun (hilabete=30 egun) lan eginez gero, kontratu berria egingo dizute uztaila eta abuzturako, Gizarte Segurantzaren altan egongo zara, eta puntu bat lortuko duzu 60 egun horientatik; baina egun gutxiago izan badira, askoz gutxiago kobratuko duzu udan:

Lan egindako egunak	Kobratzeko egunak	Lan egindako egunak	Kobratzeko egunak
5 arte	0	101 arte	8
17 arte	1	113 arte	9
29 arte	2	125 arte	10
41 arte	3	137 arte	11
53 arte	4	149 arte	12
65 arte	5	161 arte	13
77 arte	6	164 arte	14
89 arte	7	165etik gora	Uda osoa

Uda osoa kobratzekotan kontratua indarrean izango duzu abuztuaren 31ra arte, beraz, epe horretan ez dago langabezia kobratzerik. Titularrak udan zehar bajaran jarraituz gero, kontratua ez da ekainaren 30ean etengo.

## Langabezia + jardun murriztua etab.

Lanik gabe geratzen bazara edo jarduna murrizten bazaizu zure borondatez izan gabe, langabezia prestazioa eska dezakezu.

Komeni da egoera sortu eta 15 lanegun baino lehenago SEPEn hitzordua hartzea prestazioa eskatzeko. Prestazio hau jasotzeko eskubidea izateko, azken 6 urteetan 360 egun kotizatuta izan behar dituzu.



## **Esleipenak** (abuztua eta iraila)

### **Datak**

Prozesua urtero irekiko da Langileria Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez, ekainaren bigarren hamabostaldian.

Hezkuntza Sailak prozesuaren informazioa argitaratzen du bere web orrialdean, bertan aurkituko duzu:

- Prozesuaren egutegia.
- Derrigorrean esleipen informatikoan parte hartzeko gutxieneko puntuazioa; iristen ez direnek modu boluntarioan parte hartu dezakete.

### **Aukerak aldatzea (lurraldea, jarduna, Hizkuntz Eskakizunak...)**

Uztailaren hasieran egin daiteke, aldaketa hauek bakarrik esleipen telematikorako balioko dute.

### **Prozesuaren inguruko gorabeherak**

Esleipena puntuazioaren arabera egingo da.

Esleipen informatikoan parte hartu behar dutenei administrazioak plazak esleitu ahal dizkie ofizioz, haiek eskatu gabe, baldin eta norberak eskatutakoa lortu ez badu, edota ez badu parte hartu.

Ofizioz jasotakoa derrigorrean hartu behar da. Borondatez egiten dutenei ez diete esleituko ofizioz ezer.

Ez badizute ezer esleitzen eta ordezkagunera joan behar bazara irailean, birbaremazioan jarritako aukerak dira baliogarriak.

Soilik 1. afinitatea duzun espezialitateko lanpostuak har ditzakezu.

Gaixotasun arruntagatik bajan egonez gero, ezin daiteke lanpostuaren jabetza sinatu; beraz, urte osoko lanpostua galtzen da.

### **Ohar garrantzitsuak**

Administrazioak web-orrian argitaratuko ditu izendapenak. Hori, hartu duzun lanpostuaren egiaztagiria da.

### **Arazoak esleipenetan**


Ikasturte hasierako esleipenean edo ikastetxera heltzerakoan arazoren bat balego (plaza ez existitzea, plazaren definizioa aldatzea, etab.) lehenbailehen dagokion Lurralde Ordezkaritzara jo ezazu eta ordezkari sindikalari jakinarazi, arazoari berehalako irtenbidea bilatzen saiatzeko (hurrengo esleipenera joan...).

### **Zaintzagatik plazak**

ADI! Arrazoi honengatik lizentzia edo murrizketa hartzen dutenak edozein unetan buelta daitezke lanera, eta ordezkapenari amaiera eman. Gauza bera gertatzen da sindikatuetakoa liberazioekin.

## Egonkortasuna

(2020-2021 kurtsoan maisu-maestren kidegoan jarri zen abian, gainontzeko kidegoetan zehazteko dago noiz jarriko den martxan)



Hemen informazio zabalagoa

Esteka

## Ordezkoen aldarrikapenak



ORDEZKOENTZAKO  
**LIZENTZIAK ETA  
BAIMENAK HOBETU!**

**OPOSIZIO**  
EREDUA ALDATU!

ORDEZKAPEN GUZTIEN  
INFORMAZIOAREN  
**GARDENTASUNA!**

HEZKUNTZA SISTEMAK PAIRATZEN DUEN  
PRIBATIZAZIO BORTITZ HONEK ORDEZKOEN  
LANPOSTUAK SUNTSITZEN DITU!  
**PRIBATIZAZIORIK EZ!**

**ORDEZKOEK UDA KOBRATU**  
AHAL IZATEKO LANEGUN  
KOPURUA MURRIZTU!

**ESLEIPEN** PROZESUA  
UZTAILERA AURRERATU!

60 URTETIK GORAKO BITARTEKO IRAKASLEEK  
ERE IRAKASTORDUEN HEREN BATEKO  
**MURRIZKETA ESKUBIDEA!**

### Informazio gehigarria

Lan baldintza  
orokorrak:  
185/2010 DEKRETUA

Irakasleen  
eskuorria  
2020-2021

Ikastetxeen  
funtzionamendua:  
Kurtso hasierako  
ebazpenak

Lizentziak  
eta  
baimenak

Esteka

Esteka

Esteka

Esteka

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

### Araba

Eulogio Serdán 5

01012 **Gasteiz**

☎ 945 141 104 📠 945 144 302

[araba@steilas.eus](mailto:araba@steilas.eus)

UPV/EHU Arabako Campusa

Ikasgelategia, 204. Bulegoa

01006 **Gasteiz**

☎ 945 013 397 (3397)

[steilas-araba@ehu.es](mailto:steilas-araba@ehu.es)

### Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1 esk.

48013 **Bilbo**

☎ 944 100 298 📠 944 101 360

[bizkaia@steilas.eus](mailto:bizkaia@steilas.eus)

UPV/EHU Bizkaiko Campusa

Liburutegiko eraikina 1. solairua

48940 **Leioa** (Bizkaia)

☎ 946 012 434 (2434)

☎ 946 012 435 (2435)

[steilas-bizkaia@ehu.es](mailto:steilas-bizkaia@ehu.es)

### Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz.

20015 **Donostia**

☎ 943 466 000 📠 943 453 627

[gipuzkoa@steilas.eus](mailto:gipuzkoa@steilas.eus)

UPV/EHU Gipuzkoako Campusa

Ignacio M<sup>a</sup> Barriola eraikina

Elhuyar Plaza 1

20018 **Donostia**

☎ 943 018 436 (8281)

📠 943 018 140

[steilas-gipuzkoa@ehu.es](mailto:steilas-gipuzkoa@ehu.es)

### Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea

31014 **Iruñea**

☎ 948 212 355 📠 948 229 790

[nafarroa@steilas.eus](mailto:nafarroa@steilas.eus)

